

Nadia Perez Hidalgo

ITAIA SAREKO KIDEA



KORRONTEA JARRAITU GABE

“Genero problematika asko landu da historikoki. Ideologia ezagunenak feminismoa eta hark dituen azpi-korronteak dira, baina ez da lanketa hori egiten duen bakarra eta, beraz, zilegi den bakarra. Guk marxismoa erabiltzen dugu tresna analitiko gisa, osotasun batean kokatzeko aukera ematen digulako. Ez dugu ulertzen lan partzial horiek izate independente bat dutenik. Ez gara sortzen korrante bat gehiago izateko, langileria guztia printzipio sozialistaren baitan antolatzekeo baizik”.

“Klaseetan banatutako sistemak irauten duen bitartean ezingo da genero zapalkuntza gainditu”

Izaera sozialistan oinarritutako pintzipio etikoek definitzen dute Nadia Perez Hidalgoren (Ordizia, 1995) borroka politikoa. Genero problematika ikuspegi horretatik lantzen dihardu duela ia urtebete sortu zuten Itaia emakume sozialisten sarearen baitan. Barne eztabaida eta hausnarketa publiko izateko nahiak sortu zituen, formakuntzara begirako blog bat kudeatuz, besteak beste. Kontzientzia burgesa borrokatzera datoz.

AINHOA MARIEZKURRENA ETXABE **IZARO MARIEZKURRENA ETXABE**

Zein testuingurutan jaio da Itaia?

Euskal Herrian ematen ari den militantzia haustura edo prozesu sozialista hau orokorrean ulertu behar ditugu. Gurasoen belaunaldietan ongizate estatu forma batzuk garatu ziren Europan zein Euskal Herrian. Bizi maila hobetu zenez, ez zen beharrezkoa aldarri batzuk borrokatzea, eta horrek despolitizazioa ekarri zuen. Klaseertainei zuzenduriko paktu sozialak sortu ziren, proletalgora alboratuz.

Krisi ondorengo ziklo ekonomiko berri honetan proletarizazio prozesu bat ematen da, jada ez gara bizi ongizate estatu horretan. Mugimendu sozial berri asko ari dira sortzen, begi-bistakoa da feminismoak mundu mailan hartu duen indarra. Dena den, sortzen diren tresnak ez dira klase ikuspegi batetik garatzen, proletalgoraren interesak alboratu eta tresna burgesak erabiltzen dira. Forma politiko hauek zalantzan jartzen hasi gara.

Non islatzen da genero problematika?

Langile klase osoaren kontrako ofentsiba bat bada ere, subjektu debalua-

tua emakumea da. Denon bizi baldintzak okertzen badira, gureak are eta gehiago.

Zein garrantzi du klase ikuspegiak emakumearen askapenean?

Kapitalismoa formazio sozial orokor bat da. Mila faktoretan eragiten du milaka zapalkuntza erabiliz. Oinarria ekonomikoa dela esango da, baina ezin da modu sinplista horretan ulertu. Genero zapalkuntza kapitalismoaren aurretiazkoa dela ulertzen dugu, baina bere interesetara birmoldatu duena. Emakumea subjektu debalatu gisa mantentzea komeni zaio etekin handiena lortzeko. Bestetik, langile klasearen baitan etsaitasuna sortzea interesatzen zaio. Klaseetan banatutako sistemak irauten duen bitartean ezingo da genero zapalkuntza gainditu.

Eta zer garrantzi du genero problematika lantzeak langile mugimenduan?

Gure kontzientzia gizarte burges honen baitakoa da. Militantzia esparruetan ere erreproduzitzen



“DESPOLITIZAZIO UNE HONETAN HEZIKETA POLITIKOA ETA FORMAKUNTZA BEHARREZKOTZAT JOTZEN DITUGU”.

ditugu zapalkuntzak eta erasoak. Esplotazio eta zapalkuntza guztiekin bukatuko duen gizarte bat osatu nahi badugu beharrezkoa da guztiak lantzea. Zapalkuntza ez da modu mekanikoan gaindituko, baina prozesu horretarako baldintzak soilik iraultza sozialistak eskaini ditzake.

Zergatik da subjektua emakume langilea?

Emakumeak ekoizpen prozesuan betetzen duen paperak determinatzen du genero zapalkuntza. Funtzio horrek emakumeekiko forma kultural bat osatzen du, oso era desberdinetan, baina guztiak eragiten diena. Aldiz, genero problematikaren funtzio estrategikoa ulertzean konturatzen gara borroka subjektua ezin dela orokorrean kokatu, proletargoaren baitako auzian baizik.

Idea hauek defendatzeak zer eragiten dizue?

Gure ideiak ekarpen bat bezala ikusi beharrean mehatxu gisa ulertzen dituzte zenbaitek. Zapalkuntzaren ondorioak hain dira lazgarriak mundu mailan garatu dela borrokatu behar de-

naren kontzientzia. Sentsibilitate horri kritika egiteak mugimendu horrekin haustera gentozenaren ustea ekarri du, baina ez gatoz feminismoarekin bukatzera, dauzkan adierazpen postmodernoekin baizik.

Feminismoa gero eta gehiago ari da zabaltzen. Zein iritzi duzue honekiko?

Emakumearen askapenaren alde egiten duen mugimendu gisa ulertzen badugu, gu ere feminista kontsidera gaitzke. Baina garrantzitsua da feminismoa ideologia gisa ulertzea, historikoki garratu dituen estrategiak aztertzea. Gure iritziak estrategia interklasista jarraitu duen ideologia izan da gehienez.

Emakume askoren borroka grina ere pizten hasi da.

Egoera ekonomiko eta politiko honek erantzuteko beharra sortu du, emakume askoren kontzientzia politikoa piztu eta kalera ateratzeko motibo izan da. Goradaka hori kapitalak asimilatua izan da. Egun edozein da feminista eta alderdi politiko guztiek lantzen dute feminismoa. Positiboa da emakumeen borroka

grina mundura azaleratzea, baina ez da bizi baldintzak hobetzeko mekanismo errealik garatzea lortu. Aurrera egiteko, grina hori estrategia iraultzaile batean kokatzen jakin behar da.

Zeintzuk dira askapenerako gakoak?

Gure lana, oraingoz, fenomeno desberdinen ikerketan sakontzea da, emakume langileen beharrak analizatzea, inertziatzeko militantzia batetik urrun. Despolitizazio une honetan heziketa politikoa eta formakuntza beharrezkotzat jotzen ditugu. Ez badaukagu gaitasunik zeri erantzuten ari garen jakiteko, borronte politikoa hutsala bilakatzen da.

Zeintzuk dira aurrera begira dituzuen erronka edo nahiak?

Emakume langileen antolakuntza ahalbidetuko duten mekanismoak sortzea bizi baldintza kultural eta sozialak hobetzeko. Bestalde, ildo sozialistaren baitan genero zapalkuntzaren lanke-ta ematea eta harreman eredu berriak sortzea. Azkenik, emakume langileek politikari osotasun batetik erantzuteko gaitasunak bultzatzea. ●